

PROPUESTA DE ACUERDO DEL CONSEJO DE GOBIERNO EN RELACIÓN CON EL PROYECTO DE LEY DE CONVOCATORIA Y REGULACIÓN DE UNA CONSULTA POPULAR AL OBJETO DE RECABAR LA OPINIÓN CIUDADANA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO SOBRE LA APERTURA DE UN PROCESO DE NEGOCIACIÓN PARA ALCANZAR LA PAZ Y LA NORMALIZACIÓN POLÍTICA.

Con fecha 28 de septiembre de 2007, con ocasión del debate sobre política general celebrado ante el Pleno del Parlamento Vasco, el Lehendakari realizó una oferta institucional de Pacto Político al Presidente del Gobierno español sustentada sobre el principio ético de rechazo a la violencia y el principio democrático de respeto a la voluntad de la sociedad vasca. Dicha oferta se extendía hasta el mes de junio de 2008 con el fin de que el Pleno del Parlamento Vasco, antes de finalizar su periodo de sesiones, pudiera ratificar, en su caso, el Pacto Político con el Presidente del Gobierno español, si éste hubiera sido posible, o, en caso contrario, autorizar la realización de una consulta no vinculante con el fin de desbloquear la situación política y abrir un proceso de negociación.

El planteamiento de una consulta habilitadora para el inicio de negociaciones se presenta, por tanto, como subsidiario de la ausencia de un Pacto Político con el Gobierno español, pacto político que se ha intentado lograr en el marco de la citada oferta dirigida por el Lehendakari al Presidente del Gobierno español. Al no haber sido posible lograr un consenso entre ambos Gobiernos, se considera oportuno plantear al Parlamento Vasco la convocatoria y realización de una consulta popular, no vinculante, al objeto de recabar la opinión de los ciudadanos y ciudadanas vascas con derecho de sufragio activo sobre la apertura de un proceso de negociación para alcanzar la paz y la normalización política, es decir, para exigir a ETA el fin de la violencia y, en una situación de abandono inequívoco de las armas, posibilitar un proceso de diálogo y, por otro lado, para abrir una negociación entre todos los partidos políticos con el objetivo de alcanzar un Acuerdo de normalización política en el que se establezcan las bases de una nueva relación entre la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Estado español.

Dicha consulta, en definitiva, constituye un instrumento legal y democrático para que el Pueblo Vasco pueda ejercer libremente el derecho fundamental de participación ciudadana en los asuntos de trascendencia que son de su incumbencia. En este sentido, resulta esencial el papel del Parlamento Vasco en el desarrollo de los principios democráticos y en la tutela del ejercicio del derecho fundamental a la participación política del que gozan las ciudadanas y ciudadanos del País Vasco y, en particular, en la materialización de esta consulta como vía sustancial para el ejercicio de un derecho fundamental reconocido en el apartado e) del artículo 9.2 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, que establece la obligación de los

poderes públicos vascos, en el ámbito de sus atribuciones, de facilitar *“la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social del País Vasco”*. Dicha consulta habilitadora, aun no siendo jurídicamente vinculante, tiene plena validez política y social para abordar e impulsar el fin definitivo de la violencia, así como para conocer el estado de opinión de la sociedad vasca al objeto de abrir un proceso de resolución definitiva del conflicto político, entre todas las partes implicadas y sin exclusiones. Por tales razones, al no tratarse de una consulta popular por vía de referéndum, en cualquiera de sus modalidades, ni ser jurídicamente vinculante, a dicho proceso consultivo no le resulta de aplicación la Ley Orgánica 2/1980, de 18 de enero, sobre regulación de las distintas modalidades de referéndum, ni tampoco precisa, por tanto, la previa autorización del Estado para su convocatoria.

Con el fin de obtener la expresa autorización del Parlamento, por tanto, el presente Proyecto de Ley procede a realizar la convocatoria de una consulta, de carácter no vinculante, para recabar la opinión de los ciudadanos y ciudadanas de la Comunidad Autónoma del País Vasco sobre la apertura de un proceso de negociación para alcanzar la paz y la normalización política, así como regular los principales aspectos para el desarrollo y realización de la referida consulta.

No obstante, dadas las circunstancias de carácter extraordinario que concurren en el presente caso, se considera necesario que el citado Proyecto de Ley sea tramitado directamente en lectura única ante el Pleno de la Cámara, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 119.3 de su Reglamento.

En efecto, tal y como prevé el Reglamento del Parlamento Vasco, el procedimiento de lectura única está previsto para aquellos proyectos de ley cuya naturaleza o simplicidad de formulación aconsejen o permitan utilizar este procedimiento. En tal sentido, el presente proyecto de ley tiene una naturaleza ciertamente singular y novedosa, tanto por su contenido como por el fundamento último y único de la intervención parlamentaria que no es otro sino autorizar o desautorizar la convocatoria que propone el Lehendakari o, por extensión, el Gobierno. Además, debe resaltarse la simplicidad en su enunciación y contenido (un único artículo) dado que se limita a convocar la consulta, recogiendo el texto de la decisión objeto de la misma, las preguntas que se van a realizar a los electores, y la fecha para su celebración. Todas estas circunstancias, en definitiva, aconsejan su tramitación conforme a las normas del debate de totalidad, sujetándose el conjunto del proyecto a una sola votación.

A la naturaleza y sencillez del proyecto se añaden otras razones de carácter extraordinario que aconsejan su tramitación por lectura única sin la previa autorización de la Cámara, razones tales como el hastío de la sociedad vasca que ve como día tras día se impide la utilización de las vías exclusivamente políticas y democráticas para alcanzar la normalización política o la actual situación de bloqueo que preside la relación entre la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Estado español, un contexto que sólo puede ser desbloqueado de manera inmediata y sin mayor dilación a través del recurso, con carácter extraordinario, a un instrumento democrático como es recabar la opinión de la ciudadanía y poner en manos de la sociedad vasca la apertura de un proceso para abordar el fin definitivo de la violencia y la solución del conflicto político.

Por otro lado el proyecto no afecta al ordenamiento de las Instituciones de la Comunidad Autónoma, ni al régimen jurídico de las Instituciones Forales, ni a los derechos, deberes o libertades de los ciudadanos ni tampoco al régimen electoral dado que no contempla una modificación del régimen electoral sino, únicamente, la remisión al procedimiento electoral general con las necesarias adecuaciones por la índole del proceso consultivo a realizar.

En virtud de lo expuesto, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Lehendakari y previa deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ACUERDO

Primero.- Aprobar el Proyecto de Ley de convocatoria y regulación de una consulta popular al objeto de recabar la opinión ciudadana en la Comunidad Autónoma del País Vasco sobre la apertura de un proceso de negociación para alcanzar la paz y la normalización política, que se adjunta como anexo al presente Acuerdo.

Segundo.- Remitir, junto con la documentación legalmente exigible, el citado Proyecto de Ley al Parlamento Vasco para que sea tramitado directamente en lectura única ante el Pleno de la Cámara, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 119.3 de su Reglamento y las razones invocadas en la parte expositiva del presente Acuerdo.

Elévese al Consejo de Gobierno.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de mayo de 2008.

El Lehendakari.
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.



ANTEPROYECTO DE LEY DE CONVOCATORIA Y REGULACIÓN DE UNA CONSULTA POPULAR AL OBJETO DE RECABAR LA OPINIÓN CIUDADANA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO SOBRE LA APERTURA DE UN PROCESO DE NEGOCIACIÓN PARA ALCANZAR LA PAZ Y LA NORMALIZACIÓN POLÍTICA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Con fecha 28 de septiembre de 2007, con ocasión del debate sobre política general celebrado ante el Pleno del Parlamento Vasco, el Lehendakari realizó una oferta institucional de Pacto Político al Presidente del Gobierno español sustentada sobre el principio ético de rechazo a la violencia y el principio democrático de respeto a la voluntad de la sociedad vasca. Dicha oferta se extendía hasta el mes de junio de 2008 con el fin de que el Pleno del Parlamento Vasco, antes de finalizar su período de sesiones, pudiera ratificar, en su caso, el Pacto Político con el Presidente del Gobierno español, si éste hubiera sido posible, o, en caso contrario, autorizar la realización de una consulta no vinculante con el fin de desbloquear la situación política y abrir un proceso de negociación.

El planteamiento de una consulta habilitadora para el inicio de negociaciones se presenta, por tanto, como subsidiario de la ausencia de un Pacto Político con el Gobierno español, pacto político que se ha intentado lograr en el marco de la citada oferta dirigida por el Lehendakari al Presidente del Gobierno español. Al no haber sido posible lograr un consenso entre ambos Gobiernos, el Gobierno Vasco, a propuesta de su Lehendakari, ha considerado oportuno plantear al Parlamento Vasco la convocatoria y realización de una consulta popular, no vinculante, al objeto de recabar la opinión de los ciudadanos y ciudadanas vascas con derecho de sufragio activo sobre la apertura de un proceso de negociación para alcanzar la paz y la normalización política, es decir, para exigir a ETA el fin de la violencia y, en una situación de abandono inequívoco de las armas, posibilitar un proceso de diálogo y, por otro lado, para abrir una negociación entre todos los partidos políticos con el objetivo de alcanzar un Acuerdo de normalización política en el que se establezcan las bases de una nueva relación entre la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Estado español.

La consulta prevista en la presente Ley, por lo tanto, constituye un instrumento legal y democrático para que el Pueblo Vasco pueda ejercer libremente el derecho fundamental de participación ciudadana en los asuntos de trascendencia que son de su incumbencia. En este sentido, resulta esencial el papel del Parlamento Vasco en el desarrollo de los principios democráticos y en la tutela del ejercicio del derecho fundamental a la participación política del que gozan las ciudadanas y ciudadanos del País Vasco y, en particular, en la materialización de esta consulta como vía sustancial para el ejercicio de un derecho fundamental reconocido en el apartado e) del artículo 9.2 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, que establece la obligación de los poderes públicos vascos, en el ámbito de sus atribuciones, de facilitar *“la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social del País Vasco”*. Dicha consulta habilitadora, aun no siendo



jurídicamente vinculante, tiene plena validez política y social para abordar e impulsar el fin definitivo de la violencia, así como para conocer el estado de opinión de la sociedad vasca al objeto de abrir un proceso de resolución definitiva del conflicto político, entre todas las partes implicadas y sin exclusiones. Por tales razones, al no tratarse de una consulta popular por vía de referéndum, en cualquiera de sus modalidades, ni ser jurídicamente vinculante, a dicho proceso consultivo no le resulta de aplicación la Ley Orgánica 2/1980, de 18 de enero, sobre regulación de las distintas modalidades de referéndum, ni tampoco precisa, por tanto, la previa autorización del Estado para su convocatoria.

El objeto de la presente Ley, por tanto, es la convocatoria de una consulta, de carácter no vinculante, para recabar la opinión de los ciudadanos y ciudadanas de la Comunidad Autónoma del País Vasco sobre la apertura de un proceso de negociación para alcanzar la paz y la normalización política, así como regular los principales aspectos para el desarrollo y realización de la referida consulta, haciendo una expresa remisión, en todo aquello no previsto en la presente Ley, a las disposiciones reguladoras de los procesos electorales contenidas en la Ley 5/1990, de 15 de junio, de elecciones al Parlamento vasco.

Artículo único.-

1. En virtud de la presente autorización del Parlamento Vasco, el Lehendakari somete a Consulta de todos los ciudadanos y ciudadanas del País Vasco con derecho de sufragio activo, y con carácter no vinculante, las siguientes preguntas:

a) *¿Está Usted de acuerdo en apoyar un proceso de final dialogado de la violencia, si previamente ETA manifiesta de forma inequívoca su voluntad de poner fin a la misma de una vez y para siempre?*

b) *¿Está Usted de acuerdo en que los partidos vascos, sin exclusiones, inicien un proceso de negociación para alcanzar un Acuerdo Democrático sobre el ejercicio del derecho a decidir del Pueblo Vasco, y que dicho Acuerdo sea sometido a referéndum antes de que finalice el año 2010?*

2. La Consulta se celebrará el sábado 25 de octubre de 2008 en la Comunidad Autónoma del País Vasco y se tendrá por convocada por el Lehendakari el día 15 de septiembre de 2008.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

1. El desarrollo y la realización de la Consulta prevista en la presente Ley se regirá por la vigente Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, con las siguientes adecuaciones necesarias derivadas de la propia naturaleza de la consulta:

a) Las facultades atribuidas por la Ley 5/1990, 15 de junio, a los partidos, federaciones, coaliciones y agrupaciones de electores se entenderán referidas a los grupos políticos que tengan representación en el Parlamento Vasco.



b) La votación se realizará por medio de papeleta que contendrá impresas las preguntas de la Consulta y con sobre de votación. Los modelos oficiales y las características a que habrán de ajustarse las urnas, cabinas, papeletas de votación, sobres y demás documentación electoral necesaria para la celebración de la Consulta, así como el procedimiento de entrega del citado material, serán los que se determinan para las elecciones al Parlamento Vasco en el Decreto 330/1994, de 28 de julio, y sus posteriores modificaciones, con las salvedades siguientes:

- Se modifica el contenido y las características técnicas de impresión de la papeleta de votación, de acuerdo con el modelo que se adjunta en el Anexo I a la presente Ley.

- Se suprime el Anexo 3 del referido Decreto 330/1994, de 28 de julio, que contiene la documentación para la presentación de candidaturas y la constitución de coaliciones electorales.

- Se adapta el resto de los sobres e impresos electorales a la naturaleza, plazos y fecha de la Consulta prevista en la presente Ley, eliminando del texto de los mismos toda referencia a las elecciones al Parlamento Vasco y a las candidaturas y candidatos.

c) En relación con la votación y escrutinio (artículos 88, 91, 115, 116 y 119 de la Ley 5/1990, de 15 de junio):

- La decisión del votante podrá ser “sí” o “no”, marcando en el recuadro correspondiente la opción elegida o bien, dejarlo en blanco.

- Se tendrán por nulas las papeletas que no se ajusten al modelo oficial, las que ofrezcan dudas sobre la decisión del votante en alguna de las preguntas planteadas en la Consulta y las que contengan tachaduras, raspaduras, interlineados, signos o palabras ajenas a la consulta. Se considerará voto en blanco el sobre que no contenga ninguna papeleta.

- Cuando el sobre contenga más de una papeleta de la misma opción el citado voto será considerado válido. De lo contrario, cuando un sobre contenga varias papeletas de diferentes opciones, el voto se considerará nulo.

- En el acta de escrutinio de la Mesa se deberá reflejar el número de electores y electoras, el de votantes, el de votos a favor y en contra de las preguntas sometidas a consulta, el de votos en blanco y el de votos nulos.

d) Las Juntas Electorales de Territorio Histórico remitirán a la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el acta de proclamación con los resultados de la Consulta en el Territorio Histórico respectivo, en la que se hará mención expresa del número de electores y electoras, de votantes, de votos afirmativos, negativos, en blanco y de los votos nulos, para su comunicación al Lehendakari del Gobierno Vasco y a la Presidencia del Parlamento Vasco, ordenando su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

e) En relación con los ingresos, gastos y subvenciones electorales (artículos 144, 147.2 y 151 de la Ley 5/1990, de 15 de junio):



- La cantidad anticipada como subvención no podrá exceder en ningún caso del 75% del importe total de la subvención a que se tenga derecho (artículo 144 de la Ley 5/1990, de 15 de junio).

- El límite de los gastos electorales será el que resulte de multiplicar por 0,18€ el número de habitantes correspondientes a la población de derecho de las circunscripciones donde presentaron candidaturas los partidos políticos, federaciones y coaliciones electorales en las últimas Elecciones al Parlamento Vasco. La cantidad resultante de la operación anterior se podrá incrementar en razón de 173.590€ por cada circunscripción donde aquéllos hubieran obtenido escaño en las citadas elecciones (artículo 147.2 de la Ley 5/1990, de 15 de junio).

- La cuantía de las subvenciones establecidas en el artículo 151 de la Ley 5/1990, 15 de junio, se determinará según el número de escaños y de votos obtenidos por los partidos políticos, federaciones y coaliciones electorales en las últimas Elecciones al Parlamento Vasco, de acuerdo con las siguientes reglas:

- 4.800€ por cada escaño obtenido en el Parlamento Vasco.

- 0,16€ por cada uno de los votos obtenidos por cada grupo político, siempre que al menos uno de sus miembros haya obtenido escaño en la circunscripción correspondiente.

- 8.000€ por circunscripción electoral, siempre que hayan obtenido al menos un escaño por circunscripción electoral.

- Los gastos electorales originados por el envío directo y personal a los electores de propaganda, sobres y papeletas o cualesquiera otros elementos de publicidad electoral, se subvencionarán con 300.000€ para cada partido político, federación y coalición electoral con derecho a percibir subvención conforme a la presente Ley. Esta cantidad subvencionada no estará incluida dentro del límite previsto en el artículo 147.2 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, siempre que se haya justificado la relación efectiva de la actividad.

2. A los efectos de proceder a la celebración de la Consulta prevista en la presente Ley, los plazos y términos establecidos en la vigente Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, se sujetarán a las siguientes adaptaciones:

a) Las vocalías no judiciales de las Juntas Electorales de Territorio Histórico y de las de Zona serán propuestas por los partidos políticos, federaciones y coaliciones electorales en el plazo que va del cuarto al noveno día posterior al de la convocatoria, ambos inclusive (artículos 21.1 b) y 22.1 b) de la Ley 5/1990, de 15 de junio). El décimo día posterior al de la convocatoria la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma y las Juntas Electorales de Territorio Histórico se reunirán para proponer o, en su caso, designar, a la vista de las propuestas conjuntas antes citadas o en defecto de ellas, las vocalías no judiciales.

b) Los sorteos públicos para la designación de la Presidencia y las Vocalías de cada Mesa electoral tendrán lugar entre los días noveno y décimo tercero posteriores al de la convocatoria (artículo 43 de la Ley 5/1990, de 15 de junio). El proceso de notificaciones, alegación de excusas y resoluciones relativas a la formación de las Mesas finalizará no más tarde del día vigésimo noveno posterior al de la convocatoria (artículo 44 de la Ley 5/1990, de 15 de junio).



c) Los representantes generales se designarán ante la Junta Electoral de Comunidad Autónoma durante los dos días posteriores al de la convocatoria y los representantes de circunscripción se nombrarán durante los cuatro días posteriores al de la convocatoria ante la citada Junta (artículo 48.4 y 5 de la Ley 5/1990, de 15 de junio).

d) Los ayuntamientos comunicarán a la Junta Electoral de Zona que corresponda durante los siete días posteriores al de la convocatoria los emplazamientos disponibles para la colocación de carteles. Dentro de los cuatro días siguientes a dicha comunicación, la Junta Electoral de Zona asignará los espacios correspondientes y comunicará a los partidos políticos, federaciones y coaliciones electorales la asignación de los lugares reservados para sus carteles, antes del día decimotercero posterior al de la convocatoria, éste inclusive (artículo 75 de la Ley 5/1990, de 15 de junio).

e) El undécimo día posterior al de la convocatoria los partidos políticos, federaciones y coaliciones electorales podrán solicitar a la Junta Electoral de Zona correspondiente los locales y lugares públicos para la realización de actos de campaña. El día decimosegundo posterior al de la convocatoria, la citada Junta decidirá sobre las solicitudes recibidas y antes del día decimosexto posterior al de la convocatoria, éste inclusive, les comunicará a éstos los locales y lugares asignados, dando cuenta, asimismo, a la respectiva Junta Electoral de Territorio Histórico (artículo 76 de la Ley 5/1990, de 15 de junio).

f) La Oficina del Censo Electoral remitirá la documentación necesaria para emitir el voto por correo a aquellos electores y electoras que la soliciten, a partir del decimoséptimo día posterior al de la convocatoria (artículo 132 Octies de la Ley 5/1990, de 15 de junio). La Oficina del Censo Electoral enviará a los electores residentes-ausentes en el extranjero la referida documentación no más tarde del día undécimo posterior al de la convocatoria, sin perjuicio de lo que resulte de las rectificaciones del censo en periodo electoral.

3. A los efectos de una mayor comprensión de los citados plazos, en el Anexo II a la presente Ley se adjunta el calendario electoral de la Consulta.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- Desarrollo y aplicación.

Se autoriza al Gobierno Vasco y, en su caso, al Consejero de Interior para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Ley.

Segunda.- Créditos presupuestarios.

El Departamento de Hacienda y Administración Pública habilitará los créditos necesarios para la celebración de la consulta prevista en la presente Ley.

Tercera.- Entrada en vigor.

La presente Ley entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

ANEXO I

Papeleta de votación

I. ERANSKINA
Boto-txartela

2008KO URRIAREN 25eko KONTSULTA
CONSULTA DEL 25 DE OCTUBRE DE 2008

1go Galdera / 1ª Pregunta

Ados zaude indarkeriari elkarrizketa bidez amaiera emateko prozesu bat bultzatzearekin, baldin eta ETAk aldez aurretik erakusten badu zalantzarik gabeko moduan indarkeriari behin eta betiko amaiera emateko borondatea?

¿Está Usted de acuerdo en apoyar un proceso de final dialogado de la violencia, si previamente ETA manifiesta de forma inequívoca su voluntad de poner fin a la misma de una vez y para siempre?

BAI / SI

EZ / NO

2. Galdera / 2ª Pregunta

Ados zaude euskal alderdiek, bazterketarik gabe, Euskal Herriaren erabakitze eskubidea gauzatzeari buruz Akordio Demokratiko bat lortzeko negoziatio-prozesu bati ekitearekin, eta Akordio hori 2010. urtea bukatu baino lehen erreferendumera jartzearekin?

¿Está Usted de acuerdo en que los partidos vascos, sin exclusiones, inicien un proceso de negociación para alcanzar un Acuerdo Democrático sobre el ejercicio del derecho a decidir del Pueblo Vasco, y que dicho Acuerdo sea sometido a referéndum antes de que finalice el año 2010?

BAI / SI

EZ / NO

ANEXO II

Consulta del 25 de octubre de 2008
Calendario electoral



JAURLARITZAREN KONTSEILUAREN AKORDIO-PROPOSAMENA, BAKEA ETA NORMALIZAZIO POLITIKOA IRISTEKO NEGOZIAZIO-PROZESU BAT IREKITZEARI BURUZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERRITARREN IRITZIA ESKATZEKO HERRI-GALDEKETA BAT DEITZEKO ETA ARAUTZEKO LEGE-EGITASMOARI BURUZ.

2007ko irailaren 28an, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkuran egindako politika orokorrari buruzko eztabaida zela-eta, lehendakariak Itun Politiko baterako eskaintza instituzionala egin zion Espainiako gobernu-presidenteari, indarkeriaren arbuioaren printzipio etikoan eta euskal gizartearen borondatearen errespetuaren printzipio demokratikoan oinarrituta. Eskaintza hura 2008ko ekainera arte luzatzen zen, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak, bere bilkura-aldia amaitu baino lehen, Espainiako gobernu-presidentearekiko Itun Politikoa berretsi ahal izan zezan, hura posible izan balitz, ala, bestela, izaera loteslerik gabeko galdeketa bat egitea baimendu, egoera politikoa askatzeko eta negoziazio-prozesu bat irekitzeko.

Negoziazioen hasiera bideratzeko galdeketa planteatzea, ondorioz, Espainiako Gobernuarekiko Itun Politikorik egon ez izanaren ondorio da; izan ere, Itun Politiko bat lortzen saiatu da lehendakaria Espainiako gobernu-presidenteari luzatutako eskaintzaren esparruan. Bi gobernuen arteko adostasuna lortzea ezinezko gertatu denez, Eusko Jaurlaritzak, lehendakariaren proposamenez, egoki iritzi dio Eusko Legebiltzarrari loteslea ez litzatekeen herri-galdeketa bat deitu eta egitea proposatzeari, bozkatzeko eskubidea duten euskal herritar guztiek iritzia eman dezaten bakea eta normalizazio politikoa iristeko negoziazio-prozesu bat irekitzeari buruz, hau da, ETAr indarkeriaren amaiera eskatzeko eta, armak zalantzarik gabeko moduan utzi ondoren, elkarrizketa-prozesu bat ahalbidetzeko, eta, bestetik, alderdi politiko guztien artean negoziazioa irekitzeko, normalizazio politikorako Akordio bat lortzeko helburuarekin eta, Akordio horretan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Espainiako Estatuaren artean harreman berri baten oinarriak finkatzeko.

Galdeketa hori, azken batean, tresna legezko eta demokratikoa da Euskal Herriak doazkion gai garrantzitsuenetan herritarrek parte hartzeko duten oinarrizko eskubidea askatasunez gauzatu dezan. Ildo honetan, funtsezkoa da Eusko Legebiltzarraren egitekoa printzipio demokratikoen garapenerako eta Euskal Herriko herritarrek bere duten partaidetza politikorako oinarrizko eskubidea baliatzea babesteko eta, bereziki, galdeketa hau gauzatzeko, bera baita Euskal Herriko Autonomia Estatuaren 9.2 artikuluko e) zerbakian aitortutako oinarrizko eskubidea baliatzeko funtsezko bidea. Artikulu horrek euskal herri-aginteei *“Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza”* bideratzeko duten betebeharra finkatzen du, beren eskumenen barruan. Galdeketa bideratzaile honek, juridikoki lotesle izan gabe ere, baliozkotasun politiko eta sozial osoa du indarkeriaren behin betiko amaierari heldu eta hura bultzatzeko, baita inplikaturako alderdi guztien artean eta bazterketarik gabe gatazka politikoa behin betiko amaitzeko prozesuari hasiera emateko helburuarekin euskal gizartearen iritzia ezagutzeko ere. Horiengatik, eta erreferendum bidezko herri-galdeketa bat ez denez, inongo aldaeratan, eta juridikoki loteslea ere ez denez, galdeketa-prozesu honi ez zaio ezargari urtarrilaren 18ko 2/1980 Lege Organikoa, Erreferendum-motak arautzeari buruzkoa, eta deialdia egiteko ez du beharrezko Estatuaren alde zuzeneko baimena.

Legebiltzarraren berariazko baimena lortze aldera, beraz, honako Lege-egitasmo honek bakea eta normalizazio politikoa iristeko negoziazio-prozesu bat irekitzeari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren iritzia eskatzeko herri-galdeketa ez lotesle bat deitu egiten du, eta baita galdeketa hori gauzatu eta egiteak dituen alderdi nagusiak arautzen ere.

Hala eta guztiz ere, kasu honetan gertatzen diren inguruabar bereziaak kontutan izanik, Lege-egitasmoa irakurraldi bakarrean zuzenean Osoko Bilkuran izapidetzea beharrezko jotzen da, Legebiltzarraren Araudiaren 119.3 atalean xedatutakoarekin bat.

Izan ere, Eusko Legebiltzarraren Araudiak aurreikusten duen bezala, irakurraldi bakarreko prozedura beren izaeragatik ala formulazioaren errazagatik prozedura hori egoki litzazkiekeen lege-egitasmoetarako dago aurreikusita. Ildo horretan, honako Lege-egitasmo hau benetan bakana eta berritzailea da izatez, bai edukiari dagokionez, bai eta, azken batean, Legebiltzarraren partaidetzaren zio bakarra duenaren aldetik: lehendakariak edota, zabalago, Jaurlaritzak proposatzen duen galdeketa baimendu ala ez baimentzea beste ziorik ez izatea, alegia. Bestalde, testuaren eta edukiaren (artikulu bakarra) sinpletasuna azpimarratu behar da, galdeketa deitu besterik ez baitu egiten, galdetutako erabakigaiari buruzko testua bertan jasoaz, hautesleei egin beharreko galderekin eta galdeketa egunarekin batera. Inguruabar guzti horiengatik, azken batean, osoko eztabaidaren arauetara jarraiki tramitatzea aholkatzen dute, Lege-egitasmo osoa bozketa bakarraren pean jarriaz.

Lege-egitasmoaren izaerari eta erraztasunari beste aparteko arrazoiak gehitu behar zaizkio Lege-egitasmoa Ganberaren aurretiazko baimenik gabe irakurraldi bakarrean izapidetzeko, hala nola euskal gizartearen gogaitasuna, eguna joan eta eguna etorri ikusten baitu nola eragozten zaizkion bide politiko eta demokratiko soilak normalizazio politikoa iristeko, edota Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Espainiako Estatuaren arteko harremanetan gaur egun gailentzen den blokeo-egoera; testuinguru hori, herritarren iritzia eskatu eta indarkeriari behin betiko amaiera emateko prozesua irekitzea eta gatazka politikoaren konponbidea euskal gizartearen esku jartzea bezalako tresna demokratikoa ohiz kanpo erabiliz baino ezin da askatu berehalakoan eta luzapenik gabe.

Lege-egitasmoak, bestalde, ez dio eragiten Autonomia Erkidegoko erakundeen antolamenduari, ez foru-erakundeen araubide juridikoari, ez herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunei, ez eta hauteskunde-araubideari ere, ez baitu hauteskunde-araubidearen aldaketarik kontuan hartzen, baizik eta, soil-soilik, hauteskunde-prozedura orokorrera igortzen du, egin nahi den galdeketa-prozesuaren izaerari darizkion beharrezko egokitzapenekin.

Azaldukoaren ondorioz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, lehendakariaren proposamenez eta aztertu ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak ondokoa onartu du:

AKORDIOA

Lehena.- Bakea eta normalizazio politikoa iristeko negoziatio-prozesu bat irekitzeko buruz Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren iritzia eskatzeko herri-galdeketa bat deitzeko eta arautzeko Lege-egitasmoa onartzea, Akordio honi erantsen zaiona.

Bigarrena.- Lege-egitasmo hori Eusko Legebiltzarrari igortzea, lege eskatzen den dokumentuekin batera, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran irakurraldi bakarrean izapidetu dadin zuzenean, Araudiaren 119.3 atalean xedatutakoarekin eta Akordio honen azalpen-atalean argudiatutako arrazoiekin bat.

BAKEA ETA NORMALIZAZIO POLITIKOA IRISTEKO NEGOZIAZIO-PROZESU BAT IREKITZEARI BURUZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERRITARREN IRITZIA ESKATZEKO HERRI-GALDEKETA BAT DEITZEKO ETA ARAUTZEKO LEGE-EGITASMOA

ZERGATIEN AZALPENA

2007ko irailaren 28an, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkuran egindako politika orokorrari buruzko eztabaida zela-eta, lehendakariak Itun Politiko baterako eskaintza instituzionala egin zion Espainiako gobernu-presidenteari, indarkeriaren arbuioaren printzipio etikoan eta euskal gizartearen borondatearen errespetuaren printzipio demokratikoan oinarrituta. Eskaintza hura 2008ko ekainera arte luzatzen zen, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak, bere bilkura-aldia amaitu baino lehen, Espainiako gobernu-presidentearekiko Itun Politikoa berretsi ahal izan zezan, hura posible izan balitz, ala, bestela, izaera loteslerik gabeko galdeketa bat egitea baimendu, egoera politikoa askatzeko eta negoziazio-prozesu bat irekitzeko.

Negoiazioen hasiera bideratzeko galdeketa planteatzea, ondorioz, Espainiako Gobernuarekiko Itun Politikorik egon ez izanaren ondorio da; izan ere, Itun Politiko bat lortzen saiatu da lehendakaria Espainiako gobernu-presidenteari luzatutako eskaintzaren esparruan. Bi gobernuen arteko adostasuna lortzea ezinezko gertatu denez, Eusko Jaurlaritzak, lehendakariaren proposamenez, egoki iritzi dio Eusko Legebiltzarrari loteslea ez litzatekeen herri-galdeketa bat deitu eta egitea proposatzeari, bozkatzeko eskubidea duten euskal herritar guztiek iritzia eman dezaten bakea eta normalizazio politikoa iristeko negoziazio-prozesu bat irekitzeari buruz, hau da, ETari indarkeriaren amaiera eskatzeko eta, armak zalantzarik gabeko moduan utzi ondoren, Espainiako Gobernuarekiko elkarrizketa-prozesu bat ahalbidetzeko, eta, bestetik, alderdi politiko guztien artean negoziazioa irekitzeko, normalizazio politikorako Akordio bat lortzeko helburuarekin eta, Akordio horretan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Espainiako Estatuaren artean harreman berri baten oinarriak finkatzeko.

Lege honetan aurreikusitako galdeketa, beraz, tresna legezko eta demokratikoa da Euskal Herriak doazkion gai garrantzitsuenetan herritarrek parte hartzeko duten oinarritzko eskubidea askatasunez gauzatu dezan. Ildo honetan, funtsezkoa da Eusko Legebiltzarraren egitekoa printzipio demokratikoen garapenerako eta Euskal Herriko herritarrek bere duten partaidetza politikorako oinarritzko eskubidea baliatzea babesteko eta, bereziki, galdeketa hau gauzatzeko, bera baita Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 9.2 artikuluko e) zenbakian aitortutako oinarritzko eskubidea baliatzeko funtsezko bidea. Artikulu horrek euskal herri-aginteei *“Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza”* bideratzeko duten betebeharra finkatzen du, beren eskumenen barruan. Galdeketa bideratzaile honek, juridikoki lotesle izan gabe ere, baliozkotasun politiko eta sozial osoa du indarkeriaren behin betiko amaierari heldu eta hura bultzatzeko, baita inplikaturako alderdi guztien artean eta bazterketarik gabe gatazka politikoa behin betiko amaitzeko prozesuari hasiera emateko helburuarekin euskal gizartearen iritzia ezagutzeko ere. Horiengatik, eta erreferendum bidezko herri-galdeketa bat ez denez, inongo aldaeratan, eta juridikoki loteslea ere ez denez, galdeketa-prozesu honi ez zaio ezargarri urtarrilaren 18ko

2/1980 Lege Organikoa, Erreferendum-motak arautzeari buruzkoa, eta deialdia egiteko ez du beharrezko Estatuaren alde aurretiko baimena.

Lege honen helburua, beraz, bakea eta normalizazio politikoa iristeko negoziazio-prozesu bat irekitzeari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren iritzia eskatzeko herri-galdeketa bat deitzea da, baita galdeketa hori gauzatu eta egiteak dituen alderdi nagusiak arautzea ere, Lege honetan aurreikusi gabeko guztietan hauteskunde-prozesuak arautzeko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako xedapenetara igorpena beren beregi egiten delarik.

Artikulu bakarra.-

1. Eusko Legebiltzarraren baimen honen bidez, lehendakariak honako galdera hauek jartzen ditu bozkatzeko eskubidea duten euskal herritar guztien galdeketaren pean, izaera loteslerik gabe:

a) *Ados zaude indarkeriari elkarrizketa bidez amaiera emateko prozesu bat bultzatzearekin, baldin eta ETAk alde aurretik erakusten badu zalantzarik gabeko moduan indarkeriari behin eta betiko amaiera emateko borondatea?*

b) *Ados zaude euskal alderdiek, bazterketarik gabe, Euskal Herriaren erabakitze eskubidea gauzatzeari buruz Akordio Demokratiko bat lortzeko negoziazio-prozesu bati ekitearekin, eta Akordio hori 2010. urtea bukatu baino lehen erreferendumerara jartzearekin?*

2. Galdeketa 2008ko urriaren 25ean, larunbatarekin, izango da Euskal Autonomia Erkidegoan eta lehendakariak 2008ko irailaren 15ean deitutzat joko da.

Xedapen gehigarri bakarra.-

1. Lege honetan jasotako galdeketa garatzeko eta egiteko orduan, Eusko Legebiltzarreko Hauteskunderi buruz indarrean dagoen ekainaren 15eko 5/1990 Legea izango da arau-oinarri, betiere, galdeketaren izaerak berak hala eskatuta, beharrezko diren egokitzapen hauek eginda:

a) Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen bidez alderdi politikoak, hauteskunde-federazio, -koalizio eta -batasunei ematen zaizkien ahalmenak Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten talde politikoei buruzkoak izango dira, artekariak eta ahaldunak izendatu, hautesle-erolden kopiak eskuratu, hedabideetan doan iragarraldiak baliatu, hauteskundetarako aurrerakinak eta diru-laguntzak jaso, eta Hauteskunde Batzordeak eta Irrati-Telebistako Batzordea osatzeko orduan.

b) Botoa emateko orduan, galdeketaren itaunak jasoko dituen boto-txartelak eta gutun-azalak erabili beharko dira. Galdeketa egin ahal izateko beharrezko diren hautestontziak, kabinak, boto-txartelak, gutun-azalak eta gainontzeko agiriak zehazteko orduan oinarritzat hartu behar diren eredu ofizialak eta ezaugarriak eta material hori entregatzeko prozedurak uztailaren 28ko 330/1994 Dekretuan eta horri buruzko ondorengo moldaketetan Eusko Legebiltzarreko hauteskundetarako ezarritako berberak izango dira, honako salbuespen hauek errespetatuta:

- Boto-txartelaren edukia eta inprimaketa-ezaugarri teknikoak egokituko dira, lege honen I. eranskinean dagoen ereduaren arabera.

- Uztailaren 28ko 330/1994 Dekretuaren 3. eranskina eta 9.5 eranskina ez dira aplikatuko, eranskin horiek hautagai-zerrendak aurkezteko, hauteskunde-koalizioak eratzeko eta hautatutako legebiltzarkideen izendapen-agiriak jasotzeko dokumentazioari buruzkoak baitira.

- Lege honetan jasotako galdeketaren izaera, epeak eta data aintzat hartuta, hauteskundeetako gainerako inprimaki eta gutun-azalak egokituko dira, Eusko Legebiltzarreko hauteskunderi, hautagai-zerrendei eta hautagaiei buruzko aipamenak ezabatuta.

c) Botoak emateko eta zenbatzeko orduan aintzat hartu beharrekoak (ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 115., 116. eta 119. artikulua):

- Boto-emaileak “bai” ala “ez” erantzun ahal izango du, dagokion aukera laukitxoan markatuta, edo, bestela, markatu gabe zuri utzi dezake boto-txartela.

- Boto-txartela baliogabea izango da, baldin eta eredu ofiziala errespetatzen ez bada, galdeketako itaunetakoren batean boto-emailearen erabakia zein den argi ikusten ez bada, edo galdeketarekin zerikusirik ez daukan ezabaketa, zirriborro, urradura, zeinu edo hitzen bat agertzen bada. Boto zuritzat joko da barruan boto-txartelik ez daukan gutun-azala.

- Gutun-azal berean iritzi bat bakarra jasotzen duten boto-txartel bat baino gehiago dagoenean, boto hori ontzat joko da. Aldiz, gutun-azal berean elkarren aurkako iritziak agertzen direnean, boto hori baliogabetzat joko da.

- Hauteskunde Mahaiak egin beharreko boto-kontaktako agirian argi azalduko da guztira zenbat izan diren hautatzaileak, boto-emaileak, galdeketa egindako itaunen aldeko eta aurkako botoak, boto zuriak eta boto baliogabeak.

d) Lurralde Historikoetako Hauteskunde Batzordeek Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari igorri behar diote lurralde historikoetako bakoitzean galdeketak izan dituen emaitzen aldarrikapen-agiria. Agiri horretan berariaz jaso behar da guztira zenbat izan diren hautatzaileak, boto-emaileak, aldeko botoak, aurkako botoak, boto zuriak eta boto baliogabeak. Datu horien berri jakinaraziko diote Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari, baita Eusko Legebiltzarreko Lehendakariari ere, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ere emango dute.

c) Hauteskundeetako diru-sarrerak, gastuak eta diru-laguntzak direla-eta aintzat hartu beharrekoak (ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 144., 147.2. eta 151. artikulua):

- Diru-laguntza modura aurretiaz emandako kopurua ezin izango da inola ere izan eskubidez jaso behar den laguntza osoaren % 75 baino handiagoa (ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 144. artikulua).

- Hauteskundeetako gastuen muga hau izango da: Eusko Legebiltzarreko izandako azken hauteskundeetan alderdi politikoek eta hauteskunde-federazio eta -koalizioek hautagai-zerrendak aurkeztu zituzten barrutietako legezko biztanleriari dagozkion biztanleen kopurua bider 0,18€. Aurreko eragiketa horretatik sortzen den emaitza horri 173.590€ gehitu ahal izango zaio, azken hauteskunde horietan legebiltzar-aulkiren bat lortu duten barruti bakoitzeko (ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 147.2 artikulua).

- Eusko Legebiltzarrerako izandako azken hauteskundeetan alderdi politikoek eta hauteskunde-federazio eta –koalizioek lortutako boto- eta aulki-kopuruaren arabera finkatuko dira ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 151. artikuluan ezarritako diru-laguntzak, betiere, honako arau hauek aintzat hartuta:

- 4.800€ Eusko Legebiltzarrean eskuratutako aulki bakoitzeko.

- 0,16€ talde politiko bakoitzak lortutako boto bakoitzeko, baldin eta gutxienez zerrendakideetakoren batek Legebiltzarreko aulkiren bat lortu badu dagokion hauteskunde-barrutian.

- 8.000€ hauteskunde-barruti bakoitzeko, baldin eta gutxienez Legebiltzarreko aulkiren bat lortu badute dagokion hauteskunde-barrutian.

- Hautesleei zuzenean eta banan-banan bidalitako propaganda, gutun-azalak eta boto-txartelak edo bestelako hauteskunde-publizitateak direla-eta sortutako hauteskunde-gastuetarako 300.000€ emango dira laguntza modura, lege honen arabera diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten alderdi politiko, hauteskunde-federazio eta –koalizio bakoitzarentzat. Laguntza modura emango den kopuru hori ez da aintzat hartuko ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 147.2 artikuluan ezarritako mugari dagokionez, betiere, ekintza horiek benetan egin direla egiaztatzen bada.

2. Lege honetan jasotako galdeketa egiteko orduan, Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeak Araupetzeko indarrean dagoen ekainaren 15eko 5/1990 Legean ezarritako epeak eta nondik norakoak, era honetara egokituko dira:

a) Lurralde Historikoetako eta Eskualdean Eskualdeko Hauteskunde Batzordeetako kide ez-judizialak alderdi politikoek eta hauteskunde-federazio eta –koalizioek proposatuko dituzte, deialdia egin eta laugarren eta bederatzigarren egunen arteko epean, biak barnean direla (ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 21.1 b) eta 22.1 b) artikulua). Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak eta Lurralde Historikoetako Hauteskunde Batzordeak deialdia egin ondorengo hamargarren egunean bilduko dira, gorago aipatutako proposamen bateratuak badaude, horiek ikusita, kide ez-judizialak proposatzeko edo, hala badagokio, kide horiek izendatzeko.

b) Mahai bakoitzeko lehendakaria eta mahaikideak izendatzeko zozketa publikoak deialdia egin eta bederatzigarren eta hamahirugarren egunen artean egingo dira (ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 43. artikulua). Mahaiak osatzeko orduan, jakinarazpenak, desenkusa-alegazioak eta ebazpenak emateko prozesua ez da amaituko deialdia egin ondorengo hogeita bederatzigarren eguna baino beranduago (ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 44. artikulua).

c) Ordezkeri nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordean izendatuko dira deialdia egin ondorengo bi egunetan, eta barruti-ordezkeriak deialdia egin ondorengo lau egunetan izendatuko dira goian aipatutako batzorde horretan bertan (ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 48.4 eta 5 artikulua).

d) Udalek, deialdia egin ondorengo zazpi egunen barruan, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinarazi behar diote hauteskunde-iragarkiak jartzeko erabilgarri diren tokiak zein diren. Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak, jakinarazpen hori egin ondorengo lau egunetan, alderdi politiko eta hauteskunde-federazio eta –koalizioetako bakoitzari dagozkion

lekuak esleituko dizkio, eta, deialdia egin ondorengo hamahirugarren eguna baino lehen, egun hori ere barnean dela, iragarkietarako esleitu zaizkion lekuen berri emango dio bakoitzari (ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 75. artikulua).

e) Alderdi politikoek eta hauteskunde-federazio eta –koalizioek, deialdia egin ondorengo hamaikagarren egunean, kanpaina-ekitaldiak egiteko leku eta lokal publikoak eskatu ahal izango dizkiote Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari. Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak, deialdia egin ondorengo hamabigarren egunean, jasotako eskabideen gaineko ebazpenak emango ditu, eta, deialdia egin ondorengo hamaseigarren eguna baino lehenago, hori ere barnean dela, esleitu zaizkion leku eta lokalen berri jakinaraziko dio bakoitzari, baita Lurralde Historikoetako Hauteskunde Batzordeari ere (ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 76. artikulua).

f) Hauteskunde Zentsuaren Bulegoak, deialdia egin ondorengo hamazazpigarren egunetik aurrera, botoa postaz eman ahal izateko beharrezkoa den dokumentazio guztia igorriko die hala eskatu duten hautesle guztiei (ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 132. Oatien artikulua). Hauteskunde Zentsuaren Bulegoak, deialdia egin ondorengo hamaikagarren eguna baino beranduago ez, atzerrian bizi diren hautesleei igorriko die goian aipatutako dokumentazio hori, betiere, hauteskunde-aldian egindako zentsu-zuzenketen emaitzei kalte egin gabe.

3. Hemen jasotako epeak argiago eta errazago ikusteko, lege honen II. eranskinean dago erantsita galdeketa hauteskunde-egutegia.

Lehenengo Azken Erabakia.- Legea garatzea eta aplikatzea.

Honen bidez baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari, eta, hala badagokio, Herrizaingo sailburuari ere bai, honako lege hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Bigarren Azken Erabakia.- Aurrekontuetako kredituak.

Lege honetan jasotako galdeketa egin ahal izateko beharrezko diren kreditu guztiak baliatuko ditu Ogasun eta Herri Administrazio Sailak.

Hirugarren Azken Erabaki .- Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA
Boto-txartela

2008KO URRIAREN 25eko KONTSULTA
CONSULTA DEL 25 DE OCTUBRE DE 2008

1go Galdera / 1ª Pregunta

Ados zaude indarkeriari elkarrizketa bidez amaiera emateko prozesu bat bultzatzearekin, baldin eta ETAk aldez aurretik erakusten badu zalantzarik gabeko moduan indarkeriari behin eta betiko amaiera emateko borondatea?

¿Está Usted de acuerdo en apoyar un proceso de final dialogado de la violencia, si previamente ETA manifiesta de forma inequívoca su voluntad de poner fin a la misma de una vez y para siempre?

BAI / SI

EZ / NO

2. Galdera / 2ª Pregunta

Ados zaude euskal alderdiek, bazterketarik gabe, Euskal Herriaren erabakitze eskubidea gauzatzeari buruz Akordio Demokratiko bat lortzeko negoziatio-prozesu bati ekitearekin, eta Akordio hori 2010. urtea bukatu baino lehen erreferendumera jartzearekin?

¿Está Usted de acuerdo en que los partidos vascos, sin exclusiones, inicien un proceso de negociación para alcanzar un Acuerdo Democrático sobre el ejercicio del derecho a decidir del Pueblo Vasco, y que dicho Acuerdo sea sometido a referéndum antes de que finalice el año 2010?

BAI / SI

EZ / NO

Color: blanco para el cuerpo de la primera pregunta y verde claro para el cuerpo de la segunda pregunta
Medidas aproximadas: 105 x 223 mm.

II. ERANSKINA
Hauteskunde-egutegia

